



# Ninaren Lehen Jaunartzea



ANA ETXAIDE



*Karmeni eta Jesusen adiskide*

*izan nahi duten mundu guztiko haurrei*

**Txolarreak badu etxea,  
bai enarak ere kumeentzat habia,  
zure aldareen ondoan  
Jaun ahalguztiduna,  
ene errege eta ene Jainko!  
Zorionekoak zure etxean bizi direnak,  
etengabe Zu goresten!**

(Sal 84, Vg 83, 4-5).

# Nor da Nina?

Alde askotan erabiltzen da izen hau. Errusian “edertasun” esan nahi du, Persian “polit” eta Indian “begi politak”; swahiliz “ama” da, Greziako antzinako hizkuntzan “lore”. Dituen esanahi guztiak politak dira.

Gainera, Nina deitzen diegu Katalina, Marina edo beste zenbait izen daramaten pertsona askori. Denok izan gintezke Nina. Zu ere bai.





# Negu hotz bat

Baina bazen Nina bat gaixorik zegoena eta ospitalean denbora luze zeramana. Erizainak, sendagileak eta ospitaleko langile guztiak oso atseginak ziren Ninarekin eta ahalik eta gehiena kasu egiten zioten; baina bera aspertu egiten zen, han ez zegoe-lako berarekin jolas egin zezakeen haurrik, eta bere gurasoak noizbehinka baka-rrik joaten zirelako bisita egitera, ez baitziren hirian bizi.

-Amatxo, datorren urtean egingo dut Lehen Jaunartzea? –galdetu zion bisitatze-  
ra etorri zitzaion batean.

-Ez, maitea; datorren urtean ez duzu adinik oraindik; gainera, katekesian pres-  
tatu behar zara.


Hori buruan zuela, bat-batean mokoan landare baten hazia zeraman txolarre  
bat ikusi zuen leihoan:

-Gera naiteke zure balkoian gauean? –esan zion. Ler egina nago eta hotz han-  
dia egiten du. Jostailuak gordetzen dituzun kaxan babestu naiteke.

-Bueno, baina..., nire lagun izango zara?

-Bueno.

Ezkutatu beharko zuen, erizainei ez baitzaie animaliak gustatzen ospitalean, hi-  
giene kontuagatik. Nahiz eta txoriek beren burua oso ongi garbitzen duten.



Gau hartan txolarrea neke-neke eginda zegoen eta Ninak ezin izan zuen berekin hitz egin. Jakin nahi luke nondik zetorren eta zer egiten zuen.


Goizean goiz, Nina plater bat ur hari jartzera jaiki zen. Zer egingo zuen jakiteko irrikaz zegoen; edango zuen edo bainatuko ote zen... eta, orduan, bat-batean, enara bat iritsi zen hegaz eta balkoiaren ertzean kokatu zen. Kokatzean txio-txio bat bota zuen agur gisa.

-Kaixo, Nina! –esan zuen–. Gera naiteke hemen atsedean hartzera egun batez? Iparraldetik nator eta bihar Hegoaldera hegan egin behar dut han negua igarotzeko. Udaberrian itzuliko naiz eta zure teilatu-hegalean egingo dut habia, kumeak hemen hazteko. Orduan, nire bidaiari ikusitako gauzak kontatuko dizkizut. Egia esan, nire lehen migrazioa da.

-Bueno –erantzun zion Ninak–; baina..., nire lagun izango zara?

-Bai, bai; baita nire kumeak ere.

Ninak bere Lehen Jaunartzeaz hitz egin nahi zion, baina enara neke-neke egin-  
da zegoen eta lo gelditu zen.



Ninari, oso txikia zela, behin bere aitonak enaren ohiturak kontatu zizkion. Sal-  
do handietan doaz hegan Hegoaldera, neguak irauten duen bitartean han geldit-  
zen dira, eta udaberrian bere kumeak haztera itzultzen dira. Orain Ninak bat eza-  
gutu zuen.

Txolarreari esplikatu behar izan zion, txintik ulertu gabe entzun baitzuen de-  
na:

-Inoiz ez duzu Hegoaldera hegan egin?

-Ez.

-Orduan, zer egiten duzu neguan?

-Nire lagunekin jolasten naiz, beste txolarreekin.

-Eta non jolasten zara?

-Hor behean, parkean, eta batzuetan ibairaino heltzen gara.



-Hegaz?

-Ez, saltoka, haziak eta harrak bilatuz, jateko.

-Eta hazirik ez badago?

Neguan, elurra egiten duenean eta dena zuri-zuri jartzen denean, ez da janaririk aurkitzen eta goseak egoten naiz. Gainera, batzuetan usoek kendu egiten didate neuk aurkitutako janaria.



-Eta orain gose zaude?

-Bai, izugarri!

Ninak gosariko ogiaren papurrak jaso eta apurtuta eman zizkion.

-Egun on, Nina! –hots egin zuen ospitaleko neskameak gosariaren bandeja jasotzera sartu zenean–. Appetitu ona izan duzu gaur. Ikusten da ondo jartzen ari zarela.

Egun hartan Nina Hegoaldea non dagoen txolarreari azaltzen saiatu zen.

-Oso urruti dago, eguzkia eguerdian ikusten dugun lekuan.

-Ibaitik hara?

Gero, hobe zuela uztea pentsatu zuen eta, horren ordeztan, haren lagunei buruz, haren jolasketei, beldurrei eta gogoko zituen gauzei buruz galdetu zion. Eta horrela pasa zen egun hura, enara atsedean hartzen zegoen bitartean.

Gau hartan Ninak bere lagun txolarrearekin egin zuen amets, Hegoaldeko zuhaitz baten adarrean jarrita, inoiz ezagutuko ez zuen Hegoalde hartan.



Halako batean zerbaitek kraska egin zuen... eta enara hegaldatu zen bere saldoarekin bat eginez.

-Enara, enara! Datorren urtean ez, hurrengoan, Lehen Jaunartzea egin behar dut –oihu egin zuen Ninak– eta gero, bere baitan: –entzungo al zidan?



-Zer da Lehen Jaunartzea? –galdetu zion txolarreak Ninari.

Ninari zaila egiten zitzaion erantzutea, berak ere ez baitzekien ongi, baina erantzunen bat eman nahiez, esan zion:

-Jesusen lagun minago izateko da.

-Jesusena?

-Bai, Jesusena.



# Eta udaberria heldu zen

Goizero begiratzen zuen Ninak zerurantz zuhaitzen gainetik, hegazti saldoen bat Hegoaldetik hurbiltzen ikustearren. Antzara saldo bat ikusi zuen egun batean, beste batean kurriloak izan ziren, baina ez zituen enarak iristen ikusi. Halako batean, iratzartzean, bere lagun enara ikusi zuen, bakarrik, teilatu-hegalean habia eraikitzen, txolarreak arretaz begiratzen zion bitartean. Habia nahiko goian gelditzen zen, beraz, erizainek ez zuten ikusiko.

Txolarreak eta bere lagunek parketik materialak ekartzen lagundu zioten habia egiteko, eta Ninak meriendetako zukuen lastoetatik tiratxoak mozten zituen.

-Enara, konta iezadazu zer ikusi duzun Hegoaldean.

-Hainbat gauza ikusi eta hainbat entzun ditut munduko beste hainbat lurraldeetakoak, non denak kontatzea ezinezkoa baita. Politenen, mamitsuenen eta hunkigarrienen artean egin behar dut aukera. Tarsizioen historiarekin hasiko naiz. Italiatik zetorren eta ni bezala aintziran atsedean hartzen ari zen enara batek kontatu zidan historia hau.

---

# Tarsizio

Hamaika urteko mutiko erromatar bat zen Tarsizio. Kristaua zen. Erroman, batzuetan, kristauak jasaten zituzten, eta hil ere, hiltzen zituzten. Horregatik kristauek Meza erdi ezkutuan ospatu behar izaten zuten. Behin gobernadoreak agindu hau eman zuen: “Kristauak jasan ditzatela eta Jesusi uko egin nahi ez badiote, zirkoan hilak izan daitezela”.

Orduan kristau asko harrapatu eta kartzelan sartu zituzten, kristau fedeari uko egin ziezaioten. Kristauek Jauna hartu nahi zuten, beren fedea indartu eta mantentzeko. Eta apaizek, soldaduak konturatu gabe, Komunioa kristau presoiei eramateko modua bilatzen zuten.

Tarsiziok boluntario gisa eskaini zuen bere burua:

-Nik eramane diezaieket Komunioa kartzelan dauden kristauei.

Baina..., Tarsizio, oso arriskutsua da: zu aurkituz gero, hil egin zaitzakete.

Baina Tarsiziok behin eta berriz bere burua eskaini zuen; orduan apaizak kaxa txiki bat eman zion, Jesus barnean zuena. Tarsiziok bularrean ezkutatu zuen.

-Kontuz ibili, denok zure alde eta kartzelan dauden kristauen alde otoitz egingo dugu.


Bidean Tarsizio bere senitarteko andre batekin topo egin zuen. Honek bere etxean sartzera gonbidatu zuen:

-Kaixo, Tarsizio. Zatoz merienda hartzera.

-Orain ezin dut. Mandatu garrantzitsu bat eman didate. Jesus nirekin daramat.

Geroxeago, kristau ez ziren mutiko batzuk aurkitu zituen eta jolas egitera dei egin zioten:





-Kaixo, Tarsizio, jolastu gurekin.

-Orain ezin dut. Gero etorriko naiz –erantzun zien.

-Aizu, zer daramazu hor? Utzidazu ikusten.

-Ez.

-Zer ezkututzen duzu? Erakutsi, edo bestela harri bat jaurtiko dizut.

-Jesus, lagun nazazu zu defendatzen –esaten zuen Tarsiziok.

Tarsiziok ez zien Eukaristia eman eta mutikoek harriak jaurti zizkioten. Tarsiziok Jesus defendatu zuen. Orduan soldadu erromatar bat azaldu zen, kristau egiteko prestatzen ari zen bat. Mutikoek ihesari eman zioten korrika.

-Tarsizio! –esan zuen soldaduak haurra zaurituta ikusirik.

-Ehuntari, har ezazu Jesus eta eraman kristauei. Oso pozik nago.

Tarsiziok Jesus defendatu zuen, eta larri zauritua baitzegoen, laster hil zen, Jesusekin Zeruan betiko egoteko. 258garren urtea zen hauxe gertatu zenean.

-Ooooo! Ze gogorra! –esan zuen txolarreak enarak bere mintzaldia bukatu zue-  
nean.

-Enara, oroitzen zara Lehen Jaunartzea egiteko nagoela? –esan zion Ninak.

-Horregatik aukeratu dut historia hau; beste asko konta ahal banizkizuen ere.

-Tira! Konta iezadazu beste historia bat, enara.

-Horixe, kontatu gehiago –errepikatu zuen txolarreak.

Enarak oso gustukoa zuen historiak kontatzea eta historia pilo bat ezagutzen zuen, bere bidaietan gauza asko ikusten baitzituen, eta beste enarekin, eta bera baino handiagoak ziren beste hegaztiekin hitz egiten baitzuen, mundu osoan zehar ibiliak zirenekin. Baina egunean bat bakarra kontatu nahi izaten zuen, horrela gehiago pentsatzen baita eta probetxu handiago ateratzen baitzaio.

-Bihar beste bat kontatuko dizut. Gaur Tarsizioren historian pentsa ezazu.

Eta Nina, Jesus defendatzen hil zen mutiko ausart harengan pentsatzen lokartu zen.

-Horretarako asko maite behar da Jesus –esaten zuen bere baitan–. Eta oheratzerakoan halaxe otoitz egin zuen: “Jesus, lagun nazazu zu gehiago maitatzen”.

---

# Prozesioa

---

-Enara, kontatu zeuk ikusi duzun zerbait –esan zion Ninak beste egun batean.

-Ba, behin batean, atsedean hartu behar genuen laku batetik gertu dagoen hiri baten gainetik hegan gindoazela, inoiz ikusi ez nuen zerbait ikusi nuen. Lakua handik oso gertu zegoen eta horregatik hirira abiatu nintzen lehenbizi.

-Jendea –jarraitu zuen– lerroka zebilen kalean. Aurrean, urte hartan Lehen Jaunartzea egin zuten haurrak, oso jantzi apainekin eta eskuetan saskitxoak, lore hostoz beterik, zeramatala. Hostoak lurrera botatzen zituzten, lore alfonbra horren gainetik Jesus pasa zedin. Atzetik apaizak, eta haietako batek, zuri eta urre-kolore kapa batez jantzita, Jesus Ostian zeraman, Kustodia batean. Hau guztia bozgorailuez azaltzen zutelako jakin ahal izan nuen.

Prozesioan zihoan jendea eta kalean zeudenak errezatu eta kantatu egiten zuten. Atzean musikarien banda zetorren beren instrumentuak jotzen. Festa handia izan zen; egun horretan kalera ateratzen dute Jesus, itzuli eder bat eginez, jende guztiak bera ikusi ahal izateko, eta berari otoitz egin eta kanta diezaioten.

Nina, bera prozesioan joango zen eguna imajinatzen hasi zen. Arrosa koloreko soinekoa jantziko zuen, hain polita zen hura, eta kolore horiko loreak eramango zituen, Jesus pasa behar zuen lekutik haien hostoekin, alfonbra gisa, bidea apaintzeko. Eta Jesusek bera ikusiko zuen.

Baina txolarreak bere burutapenetatik atera zuen:

-Nor da Jesus? –galdetu zion.

-Jainkoa da –erantzun zion Ninak.





-Eta Jainkoa?

-Gu guztiok egin gaituena, a ze tonto puska! Eta mundua egin duena, mendi, lore, ibai eta guzti..., den guztia. Alde guztietan dago Bera.

-Nik ez dut ikusten.

-Beste gauza batzuk ere ez dituzu ikusten eta badaude. Ikusten al duzu airea? Ba, airerik gabe ezin dugu bizi.

-A!

---

# Julián

---

Gauean, loak hartu aurretik, Ninak haur baten negarra sentitu zuen, urruti samar. Baina, geroxeago, negarraren hotsa handituz joan zen. Nina korridorera atera zen, baina ez zuen inor ikusi. Bazirudien hotsa lauzpabost gela harantzago sentitzen zela. Hurrengo goizean, mutiko bat ospitaleratu zutela eta, bere gurasoak joanak zirela konturatu zenean, negarrez hasi zela esan zioten.

-Gaixoa! Joan naiteke ikustera?

-Erizainak medikuaren baimena behar zela esan zion, eta medikuak baietz esan zuen, baina aldi txiki baterako bakarrik. Ninak goizero bisita txiki bat egiten zion. Baina mutikoa triste zirauen.

-Julian –esan zion Ninak–, zuk ere arratsaldeetan nire gelara etortzeko baimena eska dezakezu.

Egun batean, iratzartzean, enararen kumeak jaio zirela sentitu zuen Ninak. Txio bizian zeuden. Lau ziren. Haiek ikustera ateratzeko zorian zegoela, gosaria ekarri zioten.

-Hau opil puska!

-Ea dena jaten duzun –esan zion neskameak.

Ninak ezin izan zion ezta erantzun ere, hain presaka irten baitzen, beti bezala, gosaria beste geletako gaixoei banatzera. Nina, gosaldutik ondoren, enarakumeak ikustera balkoira atera zen, jan gabe gelditu zitzaion opil zatia eskuan zeramala. Horrela, kumeen elikadura erraztuko zion enarari. Txolarrea urduri zebilen. Hau gaua enarakumeak eman ziotena!

Arratsalde batean, Julian Ninaren gelara pasa zen. Une hartan Nina balkoian zegoen enarakumeekin; nahiko haziak zeuden dagoeneko.

-Julian, sekretua gordetzen baduzu, enarakume bat eskuan hartzen utziko dizut, baina, kontuz! estutu gabe. Eta ezin diozu inori esan.



Julianek eskuan enarakumearen bihotza sentitzen zuen: tok, tok, tok. Arratsalde hartatik aurrera Julianek ez zuen gehiago negarrik egin, eta handik bi egunera Ninari agur esatera itzuli zen, sendatu baitzen eta etxera baitzihoan.



---

# Uda

---

Biharamunean, sendagilea oso pozik joan zen Nina bisitatzera:

-Nina, zure gurasoekin hitz egin dugu zure bila etor daitezen eta etxean boladaxo bat igaro dezazun. Eguraldi ona egiten du eta eguzkia hartu eta ariketa fisikoko pixka bat egitea komeni zaizu. Gero berriz itzuliko zara tratamendua jarraitzerara. Pozten zara?

-Bai, andrea.

Julian joana zen. Enarakumeak hegan hasiak ziren eta asko handitu eta sendotu ziren. Eta Nina bazihoan gurasoekin –hau poza!–; baina..., txolarrea? Bakarrik geldituko zen?



-Aizu, txolarre, etorri nahi al duzu etxera nirekin? –galdetu zion Ninak.

-Urruti dago? Ibaitek harantz, Hegoaldean?

-Ez, Iparraldean dago, baina neuk eramango zaitut.

-Nola?

-Ba... halaxe! –esan zuen Ninak, jostailuen kaxan zulo bat egiten zuen bitartean, txolarreak burua azaldu ahal zezan– zeure kaxan sarturik!

Zoragarriak izan ziren bi hilabete haiek, Nina landara irteten zen eta bere kanoan ere ibilaldiak egiten zituen. Txolarreak alde guztietara jarraitzen zion eta, urrutira joanez gero, bere kaxan sartuta eramaten zuen Ninak. Lehenengo igandean Nina katekesira eta mezetara joan zen eta han bere lagun guztiak ikusi zituen.



Egun hartan katekistak antzina-antzinako historia bat kontatu zuen, Tarsiziorena eta baita Jesusena baino antzinagokoa: Joserena. Honek hamar anaia zituen bera baino zaharragoak. Inbidia zioten eta bera hiltzeko asmotan zebiltzan, nahiz



eta azkenean esklabo bezala saldu zuten. Josek, ordea, ez zien gorrotorik gorde, eta gero gizon boteretsu eta zuhur bihurtu zen Egipton. Hari esker ez zen goserik izan Egipton lehorre garaian eta gariaz hornitu zuen bere familia eta lurralde osoa bolada luze hartan.



Beste igande batean Moisesi buruz mintzo zen, Egiptoko Faraoiaren alabak, Nilo ibaian, saskitxo baten sartuta, aurkitu zuen haurtxo juduaz, gero Profeta handi bat izan zena. Eta Jainkoak Moisesi bere Herriarentzat eman zizkion Hamar Aginduez.





Baina, batez ere, Jesusi buruz hitz egin zien, Eukaristian presente dagoela esanez. Ogi eta ardoren itxura dutenak Jaunaren Gorputza eta Odola dira. Eta hau esaten erakutsi zien: “Jesus, ez zaitut ikusten, ez sentitzen, eta ezin zaitut ukitu ere, baina ikusiko, sentituko eta ukituko banizu baino gehiago presente zaudela sinesten dut”. Ninak oso ederki ikasi zuen eta gero, etxean, idatzi egin zuen, ahatz ez ziezaion.

Azkeneko igandean katekistak esan zion:

-Nina, katekesiko liburua ekarri dizut. Horrela, ospitalean ikasten has zaitezke. Katekistaren bat joan ahal baldin bada ospitalera, ulertzen ez dituzun gauzak azalduko dizkizu eta, datorren udaberrian, parrokiako beste haurrekin batera lehen jaunartzea egin ahal izango duzu. Ongi iruditzen zaizu?

-Oi! Oso ederki, eskerrik asko!

Nina liburua ikusten hasi zen bere gurasoen zain egon zen bitartean.

-A ze marrazki politak! Nahi nuke nik halako marrazkiak egiten jakin.





---

# Ospitalean berriz

---

Ospitalera itzultzeak pena sortu zion noski, gurasoengatik batez ere, baina ez lehen bezala, orain proiektuak baitzituen. Anaia nagusiak bere koloretako lapitzak eta ia erabili gabe zegoen koaderno lodikote bat eman zizkion.

-Har itzazu, Nina, nik baino probetxu gehiago aterako diezu eta.

Orain, ba, bi proiektu zituen: bata, marrazten ikasi, eta bestea, katekesiko liburua irakurri. Egin ahal izango zituen bi gauzak berak bakarrik?

Ospitalera heldu zenean enararen habia hutsik aurkitu zuen.

-Iparraldera abiatuko zen, handik etorri baitzen –pentsatu zuen Ninak. Uda zen eta eguraldi oso ederra egiten zuen; txolarrea parkera joaten zen bere lagunak ikustera eta hazien bila. Beraz, Nina denbora luze egoten zen bakarrik.

-Asperten zara, Nina? –galdetzen zioten erizainek.

-Ez, ez naiz asperten, proiektuak ditut eta.

Txolarreak hori esaten ari zela entzun zion batean, galdera hau egin zion:

-Zer dira proiektuak?

-Ze tontoa zaren! Proiektu bat edukitzea, inoiz egin ez duzun zerbaiteko ilusioa izatea da, polita den zerbaite, liburu bat irakurtzea edo koadro bat pintatzea adibidez.

-A!

Konturatu zen Nina, txolarreak ez ziola ongi ulertu, baina pixka bat triste gelditu zela ere bai.

-Baina... benetan, tontoa dirudi –esaten hasi zen bere baitan–; baina bere barnean, txolarrearekin gogorra izan zela esaten zion ahots bat sentitzen zuen ere.



-Bueno, bihar berriro esplikatuko diot –erabaki zuen eta irakurtzen saiatu zen. Baina berriz ahots bera sentitu zuen esanez: Ez da tontoa, ez ote da zuk ez duzula bera ongi ulertzen? Txolarre bat da, inoiz ez du irakurtzen ikasiko, nahiz liburuari begira egon.

-Egia da –ohartu zen Nina–, eta pintatzen ere ez. Horregatik ez du ulertzen zer den proiektu bat.

Eta txolarreari esan zion:

-Aizu, txolarre, barkatzen al didazu zuri tontoa deitzeagatik? Nire adiskide izaten jarraituko duzu, ala alde egingo duzu?

Txolarreak oraindik ez zuen ongi ulertzen zer ari zen gertatzen, baina bazekien Nina zuela bere lagunik onena.

-Nik zurekin egon nahi dut beti– erantzun zion.



# Eta iritsi zen berriz udazkena

---

# Kurlinta

---

Kurri loen lehen saldoa igaro zen, baita beste hegazti saldo batzuk ere bai, baina enara ez zen iristen. Arratsalde batez, Ninak, leihotik, hegazti moko-luze bat ikusi zuen parkean. Handi samarra zen.

-Begira, txolarre, zein handia den txori hori. Ez da parke honetakoa, ezta? Eta guri begira dago. Jaitsi zaitetz eta galdetu zerbait nahi ote duen. Edo... beldur zaudede?

-Ni beldur? -eta hegaz abiatu zen.



-Kaixo. Zu berria zara parke honetan. Ez zaitut ezagutzen. Ze izen duzu?

-Kurlinta.



-Eta abizena?

-Txirulirulari.

-Ba, zu ezagutzeaz pozten naiz. Nire izena Txolarre da eta Ninaren adiskidea naiz.

-Oi, oi! Hain zuzen ere... Nina bilatzen ari naiz. Enarak esan zidan parke honetan jaisteko. Zahartzen hasia naiz eta migrazio hauek lur jota uzten naute. Ea Ninaren balkoian atsedean pixka bat har dezakedan hurrengo kurlinta saldoari batu arte.

Txolarrea ohartu zen kurlintarekin partekatu beharko zuela balkoia, baita hurrengo goizeko opil puska ere, baina ez zuen ezer esan, bai bazekien Ninak baietz esango ziola.

-Tira, igo zaitez, ba, nirekin.

-Oi! Mila esker, txiru, txiru, txiru...

-Zer esan nahi du txiru, txiru, txiru horrek?

-Ezer, ezer..., txirulirularia naizenez...

Kurlintak Ninari azaldu zion enararekin atsedean hartzen egon zela laku zoragarri batean. Enarak ezin omen zuen Ninaren balkoian gelditu oraingo bidaia honetan, enaren azken saldoan baitzihoan Hegoalderantz. Baina udaberrian kumeak haztera etorriko zela agintzen ziola.

-Mezu hau bidaltzen dizu –eta kurlintak paper tolestu zikin samar bat atera zuen. Hauxe zioen:

Nina: azken bidaia honetan ezagutu ditudan haurrak ezagutu nahi zaituzte. Bidali zure argazki bat Kurlintarekin.  
Gogoan zaitut.

**Enara**

Azkar ibili behar zuen, hurrengo kurlinten saldoa laster etorri zitekeen eta. Ninak, bera kanoan zegoen argazkia aukeratu zuen eta plastikozko poltsatxo batean sartu zuen. Eta lokarri bat jarri zion, kurlintak lepotik zintzilik eramane zezan. Txolarrearen argazki bat baizik ez zen falta.

-Zaude geldi pixka batean, txolarre, erretratu bat egin nahi dizut eta. Esan eta egin. Poltsan sartu eta kurlintaren lepotik zintzilikatu zuen.

-Kurlinta, ez kendu, gero; agian, laster alde egin beharko duzu eta. Eta esaiozu enarari udaberrian itxaroten dugula hemen.

Hurrengo egunean, goizean goiz, joan zen kurlinta.



---

# Luisa andrea

---

Txolarrea oso pozik zegoen Ninaren marrazkien lehen modeloa izan zelako, astirik izan ez bazen ere marrazkia inork ikus zezan. Bigarren ereduak parkean zebilen katu bat izan zen, txolarrea beldurtzen zuen bat. Ninak bere gelako txoko batean jarri zuen marrazkia, txolarreak ezin ikusi zuen moduz.

Erizainari grazia egin zion marrazkiak:



-Nina, Luisa andreari erakustea utziko al didazu? 205. gelan dago. Maistra da eta bere ikasleek marrazkiak bidaltzen dizkiote. Bera asko pozten da.

Marrazkien ondoren beste proiektuari ekin behar zion Ninak, Kristau Ikasbidea irakurtzeari. Baina ez zen dena erraza ulertzen, beraz, katekista baten laguntza beharko zuen.



Luisa andreari Ninak egindako katu bibotedunaren marrazkia asko gustatu zitzaion eta Nina ezagutu nahi izan zuen.

-Maitea –esan zion–, Jainkoak marrazteko gaitasuna eman dizu, baina gaitasuna ez da aski. Lan egin behar da. Jakina, beste zerbait ere ikasi beharko duzu, edo ez?

-Bai, andrea, Kristau Ikasbidea ikastera noa, datorren udaberrian Lehen Jaunartzea egiteko.

-Oi! Zein ederki! Ni maistra naiz, eta mutiko eta neskatila asko prestatu ditut Lehen Jaunartzea egiteko. Nahi baduzu, Kristau Ikasbidea ikasten nik lagunduko dizut eta marrazkiak egiten ere, zu pixka bat bideratzeko gauza izango naiz. Nahi al duzu? Zuk eta nik ahal izango dugunean.

-Eskerrik asko, andrea.

-Andereño deitu nazazu, nire ikasleek deitzen nauten bezala, berdin da eta.

Luisa andreak erizainekin hitz egiten zuen eta Nina astean bi edo hiru aldiz bere gelara tartetxo bat joan zedila saiatzen zen. Luisa andreak Ninari irakasten zion guztia berria zen honentzat, eta Nina beste gaiez ere interesatzen hasi zen: Geografiaz, Matematikaz, Zientziaz, Historiaz eta Hizkuntzaz. Luisa andreak liburuak uzten zizkion eta esaten zion:


-Ez gehiegi irakurri, ordea. Poliki irakurri behar duzu, ahogozatuz, zer dioen ohartuz. Hobe da gutxi eta ongi irakurtzea, asko eta gaizki baino. Oroituko al zara beti?

---

# Uso mezularia

---

Irakurtzeaz aspertzen zenean, marrazkiak egiten aritzen zen Nina; buruz zenbait, koloretako arrainak adibidez, eta bestetan naturatik kopiatzen saiatuz.



Geografiako liburua irakurtzen ari zen batean, uso bat kokatu zen bere balkoian:

-Uuuuuhh! Uuuuuhh! Hemen bizi al da Nina, enararen lagun mina?  
Uuuuuhh!

-Ixxxooo! Isilago hitz egin. Nor zara? –galdetu zion Ninak.

-Aintzira handitik nator. Orain han daude hegaztiak, eguraldi ona egiten baitu, eta ez da erraza hegazti migratzaileen bidez mezuak bidaltzea Iparralderantz. Enararak kontratatu nau, profesionala naizelako. Har ezazu mezu-eraztuna eta kontuz ireki.



-Uso mezularia al zara?

-Ez al dizut esan profesionala naizela? Jakina!



Mezuak halaxe zioen:

*Aintzira handitik*

Kaixo, Nina: Mezulariarekin Kubri eta Maryamen mezuak bidaltzen dizkizut. Mezulariak dendatik eramango dizuten UsoaPad-erako txartel bat emango dizu. Horrela, uso mezularia bilatu behar gabe, mezuak bidali ahal izango dituzu. Nire usoa-maila da: [enara.nina@usoa.gke](mailto:enara.nina@usoa.gke). Bidaliezadazu mezu bat eta udaberrian elkar ikusiko dugu.

**Enara**



Uso mezulariak dendara eramán zuen txartela eta segidan Ninaren balkoira itzuli zen atsedén hartzera. Handik pixka batera ospitaleko enplegatu bat gelan sartu zen:

-Pakete bat ekarri dute zuretzat, Nina. Opariren bat ote? –galdetu zion jakinminez eta gelatik irteteko gogo gutxi adieraziz. Inoiz ez baitzioten ekarri Ninari halako paketerik.

-Ez dakit –erantzun zuen Ninak paketea aulkian utziz. Gero balkoira atera zen, baina usoa lo zegoen. Orduan, paketea irekitzea erabaki zuen. Lehenik txartel bat aurkitu zuen, honela zioena:

**“Usoa” mandatu-zerbitzutik  
Ninarentzat**

Enararen aginduz UsoaPad bat bidaltzen dizugu gasturik gabe.

On dagizula!

Gero “Erabilbide orrialdea” zetorren eta, azkenik, UsoaPada. Ninak usoa esnartu arte itxarotea erabaki zuen tresna erabiltzen erakutsi ziezaion eta, bitartean, Kubri eta Maryamen mezuak irakurri zituen.

---

# Kubri eta Maryam

---

## *Kubriren gutuna Kamerunetik:*

Kaixo Nina:

Zure kanoa asko gustatu zait, eserita joan baitzaitezke. Nire kanoa, eserita banoa, ezin mugitu dut eta, gainera, hondoa bustita egoten da gehienetan.

Nire izena Kubri da eta anai-arrebetan zaharrena naiz. Lehen aitari laguntzen nion kanoan, baina orain bakarrik ibiltzen naiz, bera lanean dagoen bitartean banoan. Pozik nago, egunero eramaten baitut etxera arraina bat edo bi egunerako eta Bezia andreari ere eman ahal izaten diogu, adinekoa baita.



Baina ez dakit zer egingo dudan eskolara joaten naizenean. Badakizu? Nik joan nahi dut, ikasi nahi baitut. Hemen denek ezin dute eskolara joan, eta nire gurasoek ezin dute uniformeak, liburuak eta matrikula ordaindu.

Lehen Jaunartzea egin nuen egunean, Jesusi esan nion: “Egizu eskolara joan ahal nadin, ona baita”. Eta orain ere eskatzen diot, beste gauza asko eskatzen dizkiodan bezala. Kanoan nagoela, Jesusi esaten diot: “Zu eseri, nik eramango zaitut eta; baina zuk lagun nazazu arrantzan, familiarentzat janaria aurkitzen”. Batzuetan arrainak harrapatzea ez da erraza, baina nik badakit Jesusek, ezer ez esan arren, beti laguntzen nauela.

Agur, Kubri

### ***Maryamen gutuna Gazatik:***

Nina maitea:

Gaur Lehen Jaunartzea egin dut.

Zure enarak mezu bat bidali zidan zuri idazteko esanez, baina gaur arte itxaron dut; gaur izan da nire bizitzako egunik zoriontsuena. Kontatu nahi dizut.

Hemen beti gaude gerran izango bagina bezala, eta nire anaia nagusia ez da ia inoiz etxean egoten, beti prest egon behar baitu borrokaren bat sortzen denerako. Baina atzo etxera etorri zen eta gaur goizean berak lagundu nau elizara. Oparirik handiena izan da hori. Atzetik aitatxo eta amatxo, eta besteak zetozen.

Beste opariak gustatu zaizkit, bai, baina eman ez balizkidate ere, ez dit axola, Jesus zure barruan edukitzea munduko edozer gauza baino hobea baita. Hala ere, nire anaia etorri ahal izatea hain gauza berezia da, non Jesusek niri egindako oparia dela uste dudan.

Elizan dena polita izan da: saiatu genituen kankak, loreak, jendearen jaietako jantziak, eta denak irribarretsu, denak atsegin.



Azkenean, tiro batzuk sentitu dira urruti, eta lehenbailehen etxera joateko esan digute.

Amatxok niri gustatzen zaizkidan gozokiak egin ditu. Izugarri gustatzen zaizkit, baina... ia ez naiz gogoratzen jan ditudanik. Gaur, egun osoa, hauxe nuen buruan: “Baina benetan daukat Jesus nire barruan!”.

Idatziezadazu Lehen Jaunartzea egiten duzunean. Maite zaitut, Maryam.



---

# UsoaPad

---


Usoa esnatu zenean, Ninak esan zion:

-Uso, eman eskerrak nire partetik enarari; eta eskerrak zuri ere mezu hauek ekartzeagatik.

-Ez dakit noiz ikusiko dudan; zu zeuk idatz iezaiozu UsoaPaden bidez. Horretarako duzu.

-Baina, ez al zara zu uso mezularia? Ezin diozu zeuk nire mezua eramane?

-Nina, urteotan bizia asko aldatu da. Lehen, mezu guztiak eramaten genituen, baina hainbeste dira orain mezuak bidali nahi dituzten haurrak, eta gu hain gutxi, beste modu batez konpondu behar izan baikaren. Haur bakoitzari lehenengo mezua eramaten diogunean, UsoaPad bat ematen diogu ere, aurrerantzean gure organizazioaren bidez bidal ditzan mezuak. Probatu eta ikusiko duzu.



Eta usoak UsoaPad erabiltzen erakutsi zion.



-Begira, Nina, sakatu hemen eta idatzi helbidea. Gero, mezua, sinadura, eta sakatu berriz mezua bidaltzeko. Hamar segundotan jasotzen du bere aparatuan.

-Eta hori da guztia?

-Jakina. Orain agur esan behar dizut bihar goiz atera behar baitut. Pozten naiz zu ezagutzeaz. Enarak esan zidan bezain maitagarria zara.

-Ez al duzu ezer jan nahi?

-Eskerrik asko, bidean bazkalduko dut, basoko gure jatetxean. Zoragarriak dirahan prestatzen dituzten harrak tomatearekin.

Ninak, usoaren irakatsiei jarraituz, mezu hau jarri zion enarari:

*Nork: nina@usoa.gke*

*Nori: enara.nina@usoa.gke*

Enara, eskerrik asko UsoaPad bidaltzeagatik.

Luisa andereñoak gauza asko erakusten ari zaizkit eta Lehen Jaunartzeko prestatzen nau. Egiten dudanean, udaberrian, hemen izan zaitezela nahi dut. Maite zaitut.

Nina

Biharamunean, Luisa andereñoak Afrikaz hitz egin zion, kontinente hartan bizi diren arrazez.

-Kamerun Afrikan dago? –galdetu zion Ninak.

-Bai. Zergatik galdetzen didazu? Hara joan den norbait ezagutzen al duzu?

-Lagun bat daukat han. Kubri du izena. Berak egin du dagoeneko Lehen Jaunartzea.



-Bai? Goazen begiratzera mapan Kamerun non gelditzen den... Begira, he-  
mentxe dago. Ze hiritan bizi da?

-Ez dakit. Herri txiki batean biziko dela uste dut nik.

Luisa andreak ez zuen ezer esan, baina Ninak nola ezagutu zezakeen Kamerun-  
go mutiko bat pentsatzen gelditu zen. Ninak, ordea, gaiez aldatu zuen:

-Egiten dugunaz edo gustatzen zaigunaz hitz egin ahal diogu Jesusi ala otoit-  
zak bakarrik esan behar zaizkio? –galdetu zuen Ninak.

-Noski. Zergatik diozu?

-Kubrik zera esaten baitio: “Eser zaitez, kanoan nik eramango zaitut, lagundu  
nazazu zuk arrantzan”. Eta nik ere hala hitz egin nahi nioke Jesusi, benetako la-  
gun bati bezala.

-Hasi zaitez ba egiten horrela... eta esango didazu ea ongi doakizun.

Hurrengo egunean Kubriri mezu bat bidali zion:

*Nork: [nina@usoa.gke](mailto:nina@usoa.gke)*

*Nori: [kubri.kamerun@usoa.gke](mailto:kubri.kamerun@usoa.gke)*

Eskerrik asko zure mezuagatik. Zure kanoan Jesusekin hitz egiten duzu-  
nean, esaiozu Nina naizela, eta zure adiskidea naizela, eta nik ere hitz  
egingo diodala.

Ba al dituzu lagun gehiago? Nik gehiago izan nahi ditut. Luisa, andere-  
ñoa, nire laguna da ere, eta gauza asko irakasten dizkit, nire kabuz  
pentsatzen erakusten dit.

Agur, Nina.

Gau hartan, Ninak bere anaia nagusiarekin eta bere ahizparekin egin zuen amets, Elizara nola laguntzen zioten bere Lehen Jaunartze egunean... Baina bere anaiak ez zuen borrokara joan behar Maryamen anaiak bezala. Etxetik gertu lan egiten zuen.

Hurrengo egunean sendagilea etorri zitzaion ikustera.

-Oso pozik nago, askoz hobeto baitzaude. Gabonetan etxera joan zaitezke, joan den urtean ez bezala, oso makal etorri baitzinen. Noski, aste batzuetarako bakarrik; gero tratamendua jarraitu behar duzu.

-Eta Lehen Jaunartzerako bukatuko dut?

Ez dakigu, ea nola aurreratzen duzun; goizegi da hori jakiteko.

---

# Kichiro

---

Maryami idaztea pentsatu zuen Ninak, baina UsoaPad irekitzean, Hego Koreatik mezu bat iritsi zitzaiola ikusi zuen. Norena izan zitekeen? Ez zuen inor ezagutzen han, ez zekien ezta Korea non zegoen ere. Luisa andereñoaren mapan begiratu beharko zuen.

*Nori: nina@usoa.gke*

*Nork: kichiro.hegokorea@usoa.gke*

Kaixo Nina:

Kichiro da nire izena eta Kubrik eman dit zure helbidea. Argazkian azaltzen dena naiz. Amatxok esaten du argazki horretan badirudiela tontoarena egiten ari naizela. Gertatzen dena da, niri tontoarena egitea atsegin zaidala. Ikastetxeko jangelan nago.

Ni ere Lehen Jaunartzea egiteko nago. Urteotan nire etxean oso gauza garrantzitsuak gertatu dira: nire anaia nagusia duela lau urte Eliza Katolikoan sarrera egin zuen; nire gurasoek eta nik duela bi urte. Nire gurasoek dagoeneko Jauna hartu dute, baina nik ez, txikia bainintzen orduan, eta prestatzen ari naiz.

Gainera, nire anaia orain dela urtebete, Seminarioan sartu zen apaiz izateko. Gurasoek sekulako sustoa hartu zuten apaiz egiteko asmoa zuela esan zienean, baina orain oso pozik daude, eta amatxok bere lagun guztiei kontatzen die. Lagun minak direnei esaten die ez dagoela poz handiagorik ama batentzat seme bat apaiz izatea baino.



Eta gero esaten die, apaiz gehiago behar direla munduan, apaiz onak.  
Badakit ospitalean zaudela, segur aski aspertu egingo zara, baina nik be-  
rriro idatziko dizut.

Kichiro



---

# Eguberria

---

Egun hartan Nina Luisa andrearengana joan zen:

-Andereño, etxera joango naiz Gabonak pasatzera. Sendagileak esan dit.

-Zein ederki! Eta nola ospatzen duzue Eguberria?

-Ba... jende asko biltzen gara..., amatxok oso gauza goxoak prestatzen ditu, eta... opariak jartzen dizkigute Gabonetako arbolan.

-Baina zerbait gehiago ere egingo duzue, ezta? Eguberrian Jainkoa gu salbatzeko gizon egin zela ospatzen dugu. Haur guztiak bezala jaio zen, txiki-txikia, baina Jainkoa zen eta aingeruak eta artzainak gurtu zuten. Ezagutzen al duzu Jesusen historia?

-Pixka bat, amatxok kontatu zidana. Jesus nire laguna izan dadila nahi dut nik, baina ia ez dut ezagutzen.

-Ba, hemendik aurrera, Eguberrira arte, hona zatozenez, Jesusen bizitza irakurririko dugu, nahi duzu?

-Bai, andereño.

Jesus haurra zeneko aldia, Ninari gehien gustatzen zitzaiona Errege Magoen historia zen. Badirudi ez zirela erregeak, esan ohi den bezala, baina jende ahaltsua zen eta jakintsua. Eta Jainko Haurraren aurrean belaunikatu ziren eta gurtu zuten.

-Ikusten? –zioen Luisa andereñoak–, Magoak Jesus Haurraren aurrean belaunikatu baziren, eta Jesus Ostian Sagrarioan badago, guk ere belaunikatu behar dugu elizan, ez al duzu uste?

-Denbora asko da ez naizela elizara joan –esan zuen Ninak–, eta pozik joango nintzateke Jesus ikustera.

-Igandetan Meza ematen da ospitaleko kaperan eta, sendagileak uzten badizu, nirekin jaitsi zaitezke.

-Bai, bai, utziko naute! Eskerrik asko!

Eta, bere gelara joan zenean, Maryami mezu bat idatzi zion:

*Nori: [maryam.gaza@usoa.gke](mailto:maryam.gaza@usoa.gke)*

*Nork: [nina@usoa.gke](mailto:nina@usoa.gke)*

Eskerrik asko, Maryam zure gutunagatik eta argazkiagatik ere. Oso polita da zure soinekoa eta buruko apaingarria ere bai. Nik ez dakit oraindik amatxok zer prestatuko didan.

Ospitalean nago baina ez naiz aspertzen lehen bezala, lagun asko izaten hasi bainaiz, nire balkoian bizi den txolarreaz, eta nitaz hitz egin zizun enaraz gain.

Orain Jesusen adiskide izan nahi dut. Luisa andereñoak haren bizitza irakurtzen dit. Errege Magoek opariak eramane zizkioten Jesusi eta zuk, Berak egindako opariaz hitz egin zenidan: zure anaiarena. Niri ere egingo dit opariren bat Lehen Jaunartze egunean? Baina, jakina, nik ere pentsatu behar dut ze opari egin Berari, errege Magoek bezala. Igandean mezetara eramango naute. Jesusi horretaz hitz egingo diot eta ezagutzen ari naizen lagunez.

Muxu bat. Nina

Eguberria hurbil zegoen eta Luisa andereñoak hiru gabon-kanta erakutsi zizkion Ninari. Ninak ondo ikasi zituen eta, ez ahazteko, letrak idatzi zituen.

-Nina, kanta ieazkiozu Jesus Haurrari nire partetik zure herriko elizan. Eta erakutsi beste hurrei kantatzen. Gainera, oso ahots polita duzu. Jesusi gabon-kan-



tak asko gustatzen zaizkio, eta poz handia ematen dute, oso gauza politak esaten baitira.

Egun batean Ninaren gurasoak bere bila etorri ziren.

-Txolarre, ez duzu nahiko hemen bakarrik gelditu, ezta? Tira, sartu zaitez zure kaxan eta goazen etxera.

-Eguberri on! –hots egin zuen Luisa andereñoak leihotik Nina gurasoekin bazihoala ikustean.



# Eta Eguberria igaro zen

-Txolarre, zorabiatuta nago oraindik egun hauetako gauzekin –esan zion Ninak balkoian uzten zuen bitartean.

-Eta nik urdaila nahasia daukat hainbeste gauza goxo jan eta gero –erantzun zion txolarreak.

-Oi! Hau ezustekoa: Mezu batzuk ditut UsoaPadean.

Lehenengoa Gabonetako postal bat zen. Ama Birjina eta Haurraren irudiaren ondoan, Kichirok idazten zuen:


*Nori: [nina@usoa.gke](mailto:nina@usoa.gke)*

*Nork: [kichiro.hegokorea@usoa.gke](mailto:kichiro.hegokorea@usoa.gke)*

Eguberri on, Nina!

Nire anaia etxera etorri da Gabonak pasatzera eta postal hau eman dit zuri idazteko. Ama Birjina da, Jesus Haurrarekin. Eta behekoa, errege Magoetako bat, Jesus Haurrari oinean muxu ematen, belaunikatuta gurtzen duen bitartean. Gustatzen zaizu?

Muxu handi bat nire familiako guztien partetik, Kichiro





---

# Ying, Hawa eta Aminata

---

Hurrengoa ezin zuen asmatu norena izan zitekeen:

*Nori: [nina@usoa.gke](mailto:nina@usoa.gke)*

*Nork: [ying.london@usoa.gke](mailto:ying.london@usoa.gke)*


Nina maitea:

Enarak zutaz hitz egin zidan. Nire familia katolikoa da, baina Txinan ezin izan nuen Lehen Jaunartzea egin, oso apaiz gutxi baitira eta, gainera, elizetan biltzea debekatua dago.

Orain Londonen bizi gara eta duela bi hilabete egin nuen Lehen Jaunartzea. Bidaltzen dizudan argazkian apaizari zein zoriontsu naizen esaten ari natzaio, eta Txinan apaiz gehiago izateko otoitz egiten ari naizela; eta askatasun handiagoa ere bai; ez dakit dena ulertu zidan edo ez, nire ingelesa oraindik ez baita oso ona. Berak oso gauza politak esan zituen meza bitartean.

Oso pozik nago, hemen igandero mezetara joaten naizelako. Elizara joaten naizenean, denok familia berekoak izango bagina bezala da, eta Jesus gu guztiokin dago.

Maite zaitut, Ying.



Eta azkenik Malitik beste bat:

*Nori: nina@usoa.gke*

*Nork: hawa.aminata.mali@usoa.gke*

Nina maitea: Ni Hawa naiz, Malikoa, eta nire ahizpa gazteak, Aminata du izena. Biok egin dugu aurten Lehen Jaunartzea. Elizaren argazki bat bidaltzen dizugu, egun horretarako palmondo hostoekin apaindua. Guk ere lagundu genuen lan horretan.

Enarak esan digu oso ona izan zarela berarekin eta ezagutu behar zaitugula.

Erizainak izan nahi dugu. Eta zuk, zer nahi duzu izan? Hemendik aurrera, mezan, zure alde ere otoitz egingo dugu, laster sendatu eta etxera joan ahal zaitezten. Idatz iezaguzu.

Hawa eta Aminata





---

# Proiektu gehiago

---

Gabonetako egunek alde batetik, itzulerako bidaiak eta lagun berrien gutunek bes-tetik, hunkituta utzi zuten Nina, eta hau ler egina erori zen ohean. Biharamunean, bere proiektuak erreparatzen eta ordenatzen hasi zen: hasieran bi ziren, baina ora-in baziren gehiago: beste gai batzuk ikasten hasia zen eta lagun berriei idatzi nahi zien. Baina batez ere, Jesusen adiskide izatera iritsi nahi zuen: harekin hitz egin, Kubrik eta Kichirok egiten zuten bezala, edo Yingek bezala, apaizen alde eskatuz; igandetan Mezetara jaitsi nahi zuen, eta txolarreari ere kasu egin behar zion pixka bat, bera baitzen ospitalean izan zuen lehenengo adiskidea.

-Andereño, ez zaizkit proiektu guztiak buruan sartzen, baina ez dut bat ere utzi nahi.

-Eta zure aingerua? Laguntza eskatzen diozu? Eska iezaiozu laguntzeko, gogoratzeko zerbait ahazten bazaizu.

-Eta, egin dezake?

-Saiatu, eta gero esango didazu. Aingeruak oso argiak dira.

Gau hartan bere aingerua nolakoa izango zen pentsatzen hartu zuen lo:

-Eskolan dagoen irudikoa bezalakoa izango zen? –esaten zuen bere baitan–; neskatila babesten duela dirudi, baina nire aingeru zaindaria, denda baten ikusi dudan San Rafaelen irudiaren antzekoa bururatzen zait: Tobiasi bere bidaiari laguntzen dio, berarekin hitz egiten du eta arraina harrapatzen laguntzen dio. Imajinatzen ez badut, ez naiz berarekin hitz egiteko gauza.



Egunak aurrera zihoazen neurrian, Nina lasaitzen hasi zen. Egun baten barruan gauza asko sartzen direla ohartu zen. Bere aingeruaren laguntzarekin, imajinario apur batekin eta Luisa andereñoaren aholkuekin bere proiektu guztiak pixkanaka aurrera zihoazen. Beste bat ere bururatu zitzaion: enara udaberrian zetorrenarako habia antolatu nahi zion, txolarrearen laguntzarekin, noski. Baina horretarako bazegoen denbora oraindik.

---

# Kushi

---

Ez zuen Kichiroren beste mezu bat itxaroten. Ez zion erantzun oraindik Gabonetako postalari.

*Nori: [nina@usoa.gke](mailto:nina@usoa.gke)*

*Nork: [kichiro.hegokorea@usoa.gke](mailto:kichiro.hegokorea@usoa.gke)*

Kaixo Nina:

Mesedez, erantzun agudo mezu honi, Kushik irakurri ahal dezan. Mongoliatik etorri da bere aitarekin, nire aitaren ezaguna baita, eta bi egun bakarrik geratuko da hemen.

Bera ez dago bataiatua, ez da katolikoa eta ez du Jesus ezagutzen. Nik Beraz hitz egin diot baina barre egiten du. Nik tontoarena egiten dudala esaten du, nire amaxok dioen bezala.

Nina, bi gauza eskatzen dizkizut: lehenengoa, Kushiri idaztea, nire helbidera, Jesusi buruz hitz egin ez. Eta bigarrena, enarari idaztea Kushiri UsoaPad bat bidal diezaioten, berarekin kontaktuan jarraitu ahal dezagun.

Mongolian katoliko gutxi direnez –eta ez dakit bere herrian eliza katolikorik badagoen ala ez– guk erakutsi behar diogu, bataioa hartu ahal dezan. Nik gogoz otoitz egingo dut hala izan dadin. Errezatu zuk ere.

Muxuak, Kichiro





Nori: [kichiro.hegokorea@usoa.gke](mailto:kichiro.hegokorea@usoa.gke)

Nork: [nina@usoa.gke](mailto:nina@usoa.gke)

Kaixo Kichiro: Mezu hau Kushirentzat da.

Kaixo Kushi: Pozten nau zu Kichiroren lagun izatea; ni ere bere lagun naizenez, zu eta ni lagun gara, ezta? Eta Jesus Kichiroren eta nire lagun denez, zure lagun ere izan nahi du.

Zuk ez duzu ezagutzen, baina berak ezagutzen zaitu, Jesus Jainkoa baita, dena ezagutzen du eta guztiok maite gaitu. Bera, Jainko izanik, haur egin zen, gu bezala, eta bekatutik salbatu nahi gintuelako egin zen haur.

Ez dakit ulertzen didazun, baina ez dio axola, ulertuko duzu poliki-poliki. Zuk esaiozu egunero: "Jesus, Kichiroren eta Ninaren lagun bazaara, izan zaitez ere nire lagun. Ezagutu nahi zaitut".

Beste egun batean beste gauza batzuk kontatuko dizkizut.

Muxu bat, Nina.

---

# Lehen Jaunartzerako prest

---

Egun batean Ninak bere gurasoen bisita izan zuen. Oso pozik zeuden Nina askoz hobeto zegoela esan zienean medikuak. Apirilean edo maiatzean etxera joan ahal izango zela. Gero, aski izango zuela osasun azterketa egiteko behin edo behin etortzea.

Ninak Luisa andereñoarengana lagundu zien gurasoei. Eta hauek eskertu zioten Ninaren alde egiten ari zen guztiagatik.

-Zer uste duzu, andereño, Ninak Lehen Jaunartzea egin ahal izango du aurten?

-Hori parrokoak esan beharko du. Berak Ninarekin hitz egin nahiko du, noski, baina nik ez dut zalantzarik: oso ongi prestatua dago.

-Txolarre, maiatzean Lehen Jaunartzea egingo dut. Hau poza nirea!

-Nirea ere bai.

-Zuk ezin duzu Lehen Jaunartzea egin!

-Esaten ari natzaizu, zu pozik zaudelako, ni ere pozik nagoela.

Igandean kaperara jaitsi zen Meza hasi aurretik. Hainbeste gauza esan behar zizkion Jesusi!: zein pozik zegoen Lehen Jaunartzea egingo zuelako, zenbat ari zen ikasten, zenbat lagun zituen, ongi jartzen ari zela... baina, batez ere, gero eta gauza gehiago zituen Berari eskatzeko: Kubri ikastetxera joan ahal izateko, gerrarik ez izateko, apaiz onak izan daitezen, Txinako elizetan kristauak bildu ahal daitezen, Kushi bataiatua izateko..., eta ez zekien zerbaitez ahazten ari zen. Eta gainera, Aita Santuagatik, bere eta besteen gurasoengatik. Hainbeste gauza ziren..., idatzi beharko zituen ez ahazteko.








# Udaberria berriz

Martxoa heldu zen eta Hegoaldetik hegazti saldoak pasatzen hasi ziren.

-Begira, txolarre, horiek kurlintak izan behar dira eta beste horiek... zikoinak!

-Beste horiek, usoak –esan zuen txolarreak– bana ez mezulariak, mezulariak bakarrik ibiltzen baitira.



-Begira, horiek zure antza dute, txolarreak dirudite. Eta beste horiek? Zein arraroak diren! Zer dira? Bueno, tira! Enarari habia antolatu behar diogu, edozein momentuan hemen azalduko zaigu eta...

-Tira, lanera! -esan zuen txolarreak-. Eta hegaz parkera abiatu zen bere lagu-  
nei laguntza eskatzera.

---

# Habi banderaduna

---

Haiek enararen habia konpontzen zuten bitartean, Ninak zinta luze moduko bat prestatu zuen, bere ustez enara ibilia zen nazioetako banderez osatuta: Kamerun, Korea, Gaza..., ziur zegoen oroipenak sortuko zizkiola.

Bi egun pasata iritsi zen enara.

-Asko luzatu zara etortzen –esan zion Ninak–. Hegazti saldo asko ikusi ditugu egun hauetan.

Enarak habi banderadunean txitatzen zituen arrautzak eta, aste batzuk pasata, jaio ziren enarakumeak. Enara oso lanpetua zebilen txitekin eta esaten zuen:

-Ez dago enararik nik bezain habi polita duenik. Argazki bat aterako diot laku handiko nire lagunei erakusteko.





Ninak denbora asko ematen zion irakurtzeari eta marrazkiak egiteari. Luisa andereñoak esaten zion ongi prestatuta zegoela Jaunartzerako, baina berari atsegin zitzaion Kristau Ikasbidea behin eta berriz irakurtzea, ia-ia buruz jakiteraino. Sendagileak esan zion bi aste barru etxera joan zitekeela. Horrek pozez bete zuen, baina, aldi berean, pixka bat urduri jarri zen. Joango ote zen enara ordurako? Txitak txio-txioka zeuden, eroturik bezala, hegaz hasteko gogoia adieraziz.

---

# Berotasuna

---

Nina urduri zegoen eta gau batean ezin izan zuen lo egin. Hurrengo goizean burukominez esnatu zen eta ondoezik sentitzen zen. Berotasuna ere bazuen. Sendagileak proba batzuk egin behar zitzaizkiola esan zuen.

-Nina, proba batzuk egin behar zaizkizu, berotasuna nondik datorren jakiteko.

-Sendagile, baina ostegunean nire bila etorri behar dute gurasoek.

-Lasai, Nina, urduri jartzeak ez dizu batere lagunduko. Lehenbailehen pasa da-kizula nahi dugu denok, baina arrazoia zein den jakin behar dugu. Hemendik zoazenean, zeharo sendatuta joan behar duzu.

Nina sendagilearen aurrean negarrez hasteko zorian zegoen. Sendagaia eman zioten eta lo gelditu zen goiz hartan. Erdi ametsetan bere aingeru zaindariaz oroi-tu zen:

-Lagundu behar nauzu –esaten zion–, igandean da Jaunartzea. Esaiozu Jesusi asko maite dudala.

Ikasitako otoitzak esan nahi zituen, baina ezin zuen, ler egina baitzegoen. Hau-xe bakarrik atera zitzaion ezpainen artetik:

-Gabon, Jesus.

Biharamunean bere gurasoak etorri ziren.

-Nina, maitea –esan zion bere aitaxok–, sendagileak esan digu gertatu zaizu-nak ez duela garrantzirik, baina aste batzuk gehiago gelditu beharko zarela ospita-lean. Badakit zer daukazun buruan, baina badakit ere nire alaba ona eta adoret-sua dela, eta ez duela horregatik negarrik egiten, ezta?

-Bueno –erantzun zuen Ninak ahotsa ia altxa gabe.

-Halaxe gustatzen zait!

Arratsaldez gurasoak etxera itzuli ziren. Bere gelan bakarrik gelditu zenean, Ninak ezin izan zion eutsi aitari emandako hitzari. Negar-zotinka hasi zen... negarrez urtzeraino. Txolarreak eta enarak balkoitik begiratzen zioten Ninari. Enarak mezu batzuk bidaltzea erabaki zuen. Norbaitek erantzungo zuen, noski.



-Jesus –esaten zuen Ninak zotinka – posible al da zuk ez nahi izatea nire Jaunartzea? Badakit hori ezinezkoa dela, orduan zer?... Aitatzok esaten dit adoretzu izan behar naizela, gauza bera esan nahi didazu zuk? Zu oso adoretzu izan zinen, eta ni ere hala izatea nahi duzu? Zugatik eskain dezadala nahigabe hau?... Badakit aurreraxeago egin ahal izango dudala Jaunartzea, baina nik igande honetan egin nahi nuen... ez al zenekien hori zela nire proiektu nagusia?

Gauerako berotasuna jaitsi zitzaion eta gau hartan ondo lo egin zuen. Ez zekien arrazoia, baina ez zitzaion hain gogor iruditzen dena. Orduan jaso zituen Andriy eta Kubriren mezuak.



Nori: [nina@usoa.gke](mailto:nina@usoa.gke)

Nork: [andriy.ukrania@usoa.gke](mailto:andriy.ukrania@usoa.gke)

Kaixo, Nina!


Andriy naiz eta Kiev ondoan dagoen herrixka batean bizi naiz. Argazki bat bidaltzen dizut, amatxoren ondoan nago. Jaunartze eguneko argazkietan oso dotore jantzita nago, baina ni askoz hobeto sentitzen naiz nire elastiko laranja koloredunarekin.

Zure enarak esan zidan ospitalean geratu beharko zarela pixka bat gehiago eta, beraz, ezingo duzula Jaunartzea maiatzean egin. Ez kezkatu, berehala egingo duzu eta.

Denok dugu nahigaberen bat. Nik ere bai. Nire aita ez zen etorri nire Lehen Jaunartzera. Duela hilabete batzuk ez da gure etxean bizi. Amatxo triste dago, nahiz eta ni konturatu ez nadila saiatzen den. Baina duela egun batzuk, gauez, ohean nengoela, telefonoaren txirrina entzun nuen. Handik pixka batera bainugelara jaiki eta amatxo negarrez ari zela ohartu nintzen. Momentu hartan berriz ohera jo nuen berari ezer esan gabe, ohartu nintzela konturatu ez zedin. Baina hurrengo egunean, berak esaten didan bezala egin nituen gauza guztiak eta asko maite nuela esan nion. Horrek oso pozik jartzen du... jakina, benetan esaten zaionean, ez zer edo zeren bila zabilzanean... behin edo behin egin izan dudana bezala.

Gainera, orain, igandetan, Mezetara joan eta Jauna hartzen dudanean, esaten diot Jesusi: "Ez niri huts egin, Jesus, konpondu aitatxo eta amatxorena". Ziur nago egunen batean konponduko dela.

Muxu bat, Andriy



*Nori: [nina@usoa.gke](mailto:nina@usoa.gke)*

*Nork: [kubri.kamerun@usoa.gke](mailto:kubri.kamerun@usoa.gke)*


Kaixo, Nina, Kubri naiz.

Nola aurkitzen nauzu argazki honetan? Aldatua? Nahiko hazi naizela esaten didate eta ongi hezia nagoela. Jakina, azkenean ikasteko beka bat eman zidaten eta ikastetxe batean nago. Ikastetxeko uniformeak da hau. Nire aitari orain nire laguntza falta zaio, baina hazten naizenean hobeto lagunduko diot. Sendagilea izan nahi dut.

Enarak esan dit ezin omen duzu Jaunartzea egin zure parrokiako haurrak egiten duten egunean. Niri ere pena ematen dit, baina, egia esan, ez dakizu zer den onena.

Arratsaldean, ikastetxeko kaperara joango naiz Jesusekin pixka bat egotera eta esango diot: “Beste proiekturen bat daukazu Ninarentzat edo? Oso triste dago, ezin baitzaitu igandean hartu”. Baina, berak





beste proiekturen bat baldin badu, egon lasai, oso ona izango da, bera baita onena, proiektuak egiten ere bai. Izan konfiantza, nik egunero erregutuko diot zure alde.

Maite zaitut, Kubri

Andriyren mezua irakurri zuenean, gauzak bere egiazko neurria hartzen hasi ziren Ninarentzat. Andriyk bai zuela nahigabe handia, baina negar egin edo haserretu beharrean, bere amari gehiago laguntzen zion, amultsuki tratatzen saiatzen zen. Eta otoitz egiten zuen. Kubrik ere bai. Pentsatzen zuen bezala hitz egiten zion honek Jesusi.

-Jesus, egia al da, Kubrik dioen bezala, beste proiektu bat duzula niretzat? Eta nire proiektua baino hobea izan behar duela? Hitz egin ieza dazu zure proiektuaz.



Bueno, beste modu batez esango dizut: zer nahi duzu nik egin dezadan? Nik artista izan nahi dut: loreak eta paisaiak pintatu, erretratuak eta txoriak... txoriak ugarri, badakizu? Lagun asko ditut txorien artean; jakina, txoriak baizik ez dira, baina nire lagunak dira ere. Nirekin egon nahi dute, nire balkoian, han du bere etxea txolarreak eta bere habia enarak... Non nahi dudan eduki nire etxea? Hori galdetzen didazu?...

---

# Luisa andereñoaren oparia

---

Momentu hartan Luisa andereñoa Ninaren gelan sartu zen.

-Egun batzuk gehiago hemen gelditu behar duzula esan didate eta nahigabetua izango zinela pentsatu dut. Horregatik etorri naiz. Baina ez tristatu. Gainera, nahigabe hori Jesusi eskain diezaiokezu. Ez zenuen pentsatzen opariren bat egin nahi zeniola? Ba, hori duzu oparirik onena: ez tristatzea planak aldatu dizkizulako, pozik egon Berak beste plan batzuk baititu zuretzat.

-Planak proiektuak bezalakoak dira, ezta?

-Horixe da.

-Bai, esan dit Kubrik, Jesusek dituen proiektuak beti onenak direla.

-Tira, Nina! Ez zaitez triste egon. Egizu irribarre.

Luisa andereñoak opari bat zuen prestatuta Ninarentzat eta azken egunetaraino itxaroten ari zen emateko.

-Baina orain ematea erabaki dut, ni ere asteburu honetan ospitaletik banoalako, alta hartuta. Meza liburu bat da, Mezaren otoitzak ditu. Irakurri ahal izango duzu egun hauetan, baina markatxoa jarri dudan orrialdean otoitz eder bat dago Jaunartzea egin behar zenuen egunean errezatzeko. Gogozko Jaunartze bat da. Nahi duzunean esan dezakezu, baina batez ere, Jauna hartu nahi zenukeenean eta arrazoiren batek galarazten badizu, datorren igandean bezala.

Nina irakurtzen hasi zen: “Jauna, nik hartu nahi zaitut zure Ama txit Santuak hartu zintuen garbitasun, apaltasun eta debozio berberaz, santuen espiritu eta maitasunugarraz”.

-Oso polita da. Ikasiko dut.

-Beste gauzatxo bat, azkenik. Igandean ezin duzu Lehen Jaunartzea egin, baina, nahi baduzu, lehenengo Aitortza egin dezakezu. Ospitaleko kapilaua elizan

egongo da Meza aurretik eta badaki nor zaren. Prestatua zaudenez, aitortu ahal izango zara. Badakizu nola egin.

-Eskerrik asko, andereño. Pozik egingo dut.

Luisa andereñoa Ninaz despeditu zen:

-Beti zutaz oroituko naiz, zure proiektu guztiak eta Jainkoak zuretzat gordetzen dituen planak bete daitezten, zoriontsu izan eta beti alai bizi zaitezten.

Luisa andereñoa atera zenean, Nina berriz irakurtzen hasi zen.

-Nolakoa izango zen Birjina Maria? –pentsatu zuen Ninak–. Oso polita izango zen, jakina. Baina, Jesusen Ama zenez, Berak beste inork baino hobeto ezagutuko zuen, noski; eta gainera, gu bere Semearen adiskide izan eta asko maita dezagula nahiko zuen. Kubrik eta Kichirok, baita Andriyk ere eta Luisa andereñoak asko lagundu didate Jesus maitatzen, baina gehienik lagunduko didana Birjina Maria da.



---

# Kubri, Andriy eta Kushiri gutunak

---

Igandean Ninak bere lehen Aitortza egin zuen. Meza eta gero, bere lagunei idazten jarri zen.

*Nori: [kubri.kamerun@usoa.gke](mailto:kubri.kamerun@usoa.gke)*

*Nork: [nina@usoa.gke](mailto:nina@usoa.gke)*

Kaixo Kubri:

Bai, haziago aurkitzen zaitut eta oso polita da zure uniformea. Asko pozten naiz ikastetxean zaudelako, eta mediku izan nahi duzula-ko.

Eskerrik asko zure gutunagatik. Arrazoi duzu. Tontoa izan naiz Lehen Jaunartzea atzeratu zaidalako nahigabetuz. Jesusek nahi duenean egingo dut. Gaur nire lehen Aitortza egin dut. Apaizak esan dit ez izateko kezkarik. Ez jakin nahi izateko zergatik utzi duen Jainkoak nire Jaunartzea atzera dadin. Ziur dagoela Jesusek asko maite nauela, nigitik hil baitzen Gurutzean, baina baita ere eskatzen ari zaidalako berari Gurutzean laguntzeko, hartu dudan nahigabe hau eskainiz. Bere proiektua ote?

Orain nahigabe hura ez da nahigabe, Jesusek horrela izatea nahi duela dakit eta.

Oso pozik nago Jesusek bere grazia eman baitit Aitortzan, Bera hartu ez badut ere.

Maite zaitut, Nina.

*Nori: Andriy.ukrania@usoa.gke*

*Nork: [nina@usoa.gke](mailto:nina@usoa.gke)*

Kaixo Andriy:

Hemendik aurrera zure nahigabeaz oroituko naiz eta zure gurasoen alde otoitz egingo dut ere. Zure amatxo oso polita da eta maitagarria dirudi benetan.

Niri nahigabea joan zait dagoeneko. Lehen Jaunartzea beste haurrekin egitea ez da garrantzi handienekoa: ilusioa egiten zidan festak, joango den jendeak..., baina konturatu naiz Jesus hartzea dela inportadun gauza bakarra, eta hemendik aurrera horretan bakarrik pentsatuko dut.

Gaur Aitortza egin dut. Apaizak ohartarazi dit, pixka bat atzeratzen bazait ere, Jauna hartzea zorte izugarria dela. Niri normala iruditzen zitzaidan. Baina berak esan dit milaka eta milaka direla Jesus ezagutzen ez duten haurrak eta inoiz Jesus hartu ezingo dutenak.

Niri ere oso polita iruditzen zait zure elastikoa.

Maite zaitut, Nina.

*Nori: kushi.mongolia@usoa.gke*

*Nork: [nina@usoa.gke](mailto:nina@usoa.gke)*

Kushi:

Oroitzen zara nitaz? Kichiroren laguna naiz. Esan didate badaukazu-  
la UsoaPada. Ze ederki! Horrela idatzi ahal izango dizut.

Jesusen adiskide zara dagoeneko? Kichiroz gain, nik badauzkat Je-  
susen lagunak diren zenbait lagun: Kubri, Andriy, Ying, Hawa, Aminata,  
Maryam. Lagunak gara Jesusek denok maite gaituelako. Bere Amak, Bir-  
jina Mariak ere maite gaitu. Zoragarria da!

Jesus hobeto ezagutzeko, joan zaitez zure hiriko eliza katolikora eta  
eskatu apaizari kontatzeko zergatik maite gaituen hainbeste Jesusek,  
eta zergatik nahi duen elkarren artean maita gaituzen eta elkarri lagun  
diezaiogun.

Idatzi agudo. Muxuak. Nina



---

# Jesus, nik beti zurekin egon nahi dut

-Jesus -zioen gero Ninak-, eskerrak niri lagun hauek emateagatik, zu ezagutzen eta gehiago maitatzen laguntzen bainaute. Nik ere lagundu nahi diet eta ezagutzen ez zaituzten hurrei ere bai. Egizu Kushik zu ezagutu eta hartu ahal izatea.

-Zuri ulertzen hasi naizela uste dut -jarraitu zuen-. Nik artista izan nahi dut, margolaria, baina beste edozein gauzen aurretik zure proiektua nahi dut. Nik zure ondoan bizi nahi dut, hobeto esanda, zure etxean bizi, txolarrea eta enara nire balkoian dauden bezala, Baina, horretarako ez dago hil beharrik, ezta? Tarsizio bezala esan nahi dut, haurra zela. Gero bai, Jose bezala; Jose ez zen hil putzura bota zutenean. Urte asko bizi izan zen, zoriontsu, jende guztiei on egin zien, seme-alabak eta bilobak izan zituen. Eta asko maite izan zuen Jauna. Nik ere bai, Jesus, nik beti zurekin egon nahi dut.

Orduan txolarreak burua azaldu zuen.

-Kaixo, txolarre, badakizu etxera noala betiko? Eta zuk, zer egin behar duzu?

-Nik zurekin joan nahi dut, kaxan.

-Eta parkeko zure lagunak utzi behar dituzu? Nire herrian ez duzu lagunik.

-Ez ditut utzi nahi, baina, zer egin behar dut?

-Julianez oroitzen zara? Ze pozik jarri zen ikusi zintuenean eta enarakumea eskuetan hartu zuenean?

-Bai. Ez zuen gehiago negarrik egin.

-Ba, gela honetara beste haurren bat etorriko da, ohea txikia baita. Eta izan liteke bakarrik sentitzea eta pixka bat triste egotea. Ulertzen didazu, ezta?

-Bai. Nire proiektua izan liteke?

-Bai, proiektu zoragarria. Oso ederki egingo duzu eta nik inoiz ez zaitut ahaztuko.



**Texto:** Ana Echaide

**Ilustraciones:**

Acuarelas: Amaia Tellería Larraza

Dibujos infantiles: Carmen Rad García

Postal navideña: Rafael Echaide Itarte

Obras clásicas: J.F. Overbeck, José vendido por sus hermanos, Fresco de la casa Bartholdy, Roma; Rafael Sanzio: Moisés salvado de las aguas, Museos Vaticanos; Rembrandt, Harmensz van Rijn: Tobías y el ángel al borde del agua, Museo del Louvre, Paris.